

## **Etxebizitzaren beharra eta eskaria, 2007 urtea**

### **Lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari eta eskariari eustea lortu da**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak landutako 2007ko Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestako emaitzek erakusten dutenez, euskal gazteriak lehen etxebizitza eskuratzeko agertu duen beharrari eustea lortu da.

Azken urteetan eraikitzen hasitako etxebizitza-bolumen handiarekin ba-tera, bilakaera demografikoak berak eragin handia du lortutako emaitze-tan, izan ere, gero eta baxuagoa da emantzipatzeko adinera iristen ari den gazte kopurua.

Hala ere, oraindik 80.000 lagun baino gehiago dira lehen etxebizitza esku-ratzeko beharra dutenak.

Bestalde, emaitza horiek aztertuz esan daiteke, gazteek gero eta zailagoa dutela datozen urteetan etxebizitza bat eskuratu ahal izatea. Eta ikuspegi ezkor horretan zerikusi handia du adierazle ekonomikoek erakusten duten bilakaerak.

[Emaitza nagusiak](#) (pdf, 54 Kb) 2008/04/29

[Beharra eta eskariaren behin betiko txostena](#) (pdf, 1355 Kb) 2008/04/29